

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

631. zkia.

XV. urtea

2007ko urriaren 19a



Gorputz azterketa Elgoibarko emakumeei

Modari neurria hartzen

komunikazio **dgraff** grafikoa



ZURE IRUDIAREN DISEINUA SORTZEN DUGU !

Dgraff-en, enpresa, zerbitzu edo produktuen sormenez eta kudeaketaz ardurazen gara behar espezifikoak kontuan izanik.

Informazioa eska ezazu 943 74 12 59 telefonoan, edozelako kontsultarako prest egongo gara eta berehala aurkeztuko dizuegu Dgraff-ek bere bezeroei eskaintzen dizkien produktu eta zerbitzuen adibide ezberdinak; irudi korporatiboen sorrerak, katalogoak, prentsa iragarkiak, webste-ak etab. ...



Lagofaok irudi korporatiboa katalogoak folioak kartak iragarkiak Lagofaok irudi korporatiboa katalogoak folioak kartak iragarkiak Lagofaok irudi korporatiboa katalogoak folioak kartak iragarkiak

EUSKARAZKO JOLASEN IKASTAROA



ETXEKO TXIKIEKIN JOLASTU NAHI DUZULA?

ZATOZ EURENTZAKO APROPOSAK DIREN JOLASAK IKASTERA.

Norentzat: 3-6 urte bitarteko haurrak dituzten guraso eta zaintzaileentzat.

Noiz: AZAROAK 8, 15, 22 eta 29
(azken saioan haurrak gurasoekin batera)

Ordutegia: 18:30-20:00 (taldearen erabakiz alda daiteke)

Prezioa: 5 euro (ikastaroko lehen egunean ordaindu behar da)

Ikastaroko hizkuntza: euskaraz zein gaztelaniaz
(partaideen arabera)

Izen-ematea: Ikastetxean bertan urriaren 24a baino lehen.



EUSKARA
SAILA



Laguntzaileak: Herri Eskola eta Elgoibar Ikastola



AITZOL GARMENDIA



SARE GURRUTXAGA

ZOZOAK BELEARI...

Sare,

Gaur bertan lagun batek kontaktu didan batekin natorren oraingoan. Irudika ezan hau. Soziedade bat Elgoibarren, eta bertan gizon koadrila bat bero-bero diskusioan. Gaia, minutu batean zer luketen nahiago, plaza batean gorriz jantzita zeren batekin sartzea ala boxeo ring batean Mike Tyson-ekin. Harrapa ezan! Eta luze bezain bero luzatu omen zunan asuntoa. Iritziak kolore eta matiz guztietakoak imajina zitzakenat. Hori bai, denak ere argumentu, logika eta esperientziak bustiak. Tonua altxatu gabe eta hitz egiteko txanda gordez arituko zitun gainera.

Gure koadrilan ere izan dinagu horrelako franko. Klasiko bat gogora ekartzearen, honatx: la Mugertza krosean irabazte- ra doanari Mintxetan azken ehun metroak eutsiko ote genizkion... No comment.

Horrelako zenbat diskusio antzu izaten dinagu?! Segituan kateatzen gaitu gainera. Batek, nik uste baietz... besteak, nik ez... ezta pentsatu ere! Ba nik badakit hau eta bestea seguru... Eta horrela inolako bukaerarik gabe. Izan ere, ez zagon bukaerarik. Arrazoi gabeko hitz-aspertuetan bakoitzak bere burua, bere trintxera, defendatzea besterik ez baitun gelditzen.

Bitartean, urteak aurrera eta euskal gatazka konpontzen ez dela-eta protestaka jarraitzen dinagu. Dialogoa eta dialektika ez zauden modan.

«Zenbat diskusio antzu izaten dinagu?»

AITZOL

«Belarriak itxiz hitz egitea bai zagok, ordea, modan»

SARE

Belarriak itxiz hitz egitea bai zagok, ordea, modan. Dialogoaren ordezkari monologoa. Bakoitzak berea bota eta bota, ahotskordak lehertu arte. Bi belarri eta aho bat zertarako ditugun ahaztua zagok antza. Eta protestaka segitzen diagu. Baina protestatik ekintzara pasatzea kostatzen zaiguk gazte gehientsuenoi. Niri bame, noski. Euskal gatazka konpontzen ez dela eta protesta. Baina noizko ekin protesta egiten diagun denok? Ez batzuk, baizik eta denok. Ni bame, noski.

Euskal gatazkagatik urrun dagoen batek euskal gaztedia lasai ikusten duela esan zidan. Euskal Herrian ondo bizi garelako dirudiela, eta gugatik asko poztzen dela, baina ez diagula behar adina protestatzen. Behar adina ekiten. Orokorrean gauzak nahiko onartuak ditiagula. Orokorrean. Pena bat duk urrunetik inpresio hori ematea, ez duk? Pena bat duk ordenean gutiz murgilduta gauden itxura ematea, ez duk? Parte handi batean arrazoia dik eta gure esku zagok horri buelta ematea. Baina hain eroso duk diskusio antzuetan denbora pasatzea. Hain eroso duk ordenean morrontzan erortzea.

Bitartean, bukaerarik gabeko hitzaspertuez gozatzen jarraituko diagu. Titini tanto bat egiteko gai izango al hintzen? Bat eta bakarra? Edo norekin oheratuko hintzen gustorago, Beckamekin, Jeniffer Lopezekin edo biekin batera? Enpin.



BOZAK EZERTARAKO BALIOKO BALU, LEGEZ KANPO
UTZIKO LUKETE



Anonimoa

Soin heziketa

Idazki honen bidez soin, heziketaren (ariketa fisiko, kirola, jolasak, osasuna...) inguruko azken informazioak eman nahi dizkizuet:

Orain dela 13 urte bezala oraingoan ere Heziketa Fisiko arloan murrizketa baten aurrean gaude.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamenduak Oinarritzako Hezkuntza (6-16 urte artekoa) arautuko duen Euskal Curriculum Berria Soin Heziketa arloa ia %40 murrizten da. Dekretu honekin Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek beraien gorputz eta motore gaitasunak garatzeko, ariketa fisikoa egiteko eta ohi-tura osasungarriak eskuratu eta garatzeko denbora erdia izango dute.

Gorputz eta motore garapena adin hauetan ez al da ezinbestekoa umearen garapen osoaren baitan? Gure seme-alaben hezkuntza betiko arlo jakin batzuetara mugatuko al da bakarrik? Egungo gizartearen norabidea ikusita Soin Heziketak berebiziko garrantzia du, arlo hau ez baita soilik mugatzen gaitasun fisiko eta motoreak garatzera. Izan ere, ariketa fisikoa eta kirola egiteko ohi-turak eskuratzeko lehendabiziko aukera eta baliabidea da, beti ere haurrak bere eta besteen gorputza ezagutuz, onartuz eta

errespetatuz, aniztasuna onartzen eta baloratzen ikasiz, elkarbizitarako baloreak (arauen errespetua, elkarlana, kooperazioa, hezkidetzeta...)... landuz. Hau guztia, sedentarismoa, loditasuna, anorexia, bulimia, drogamenpekotasuna, ariketa fisikoaren uzte goiztiarra, genero biolentzia... bezalako gizarte arazoei aurre egiteko.

Murrizketa honen aurrean Hezkuntzako Departamenduari proposamena atzera botatzeko eskaera egiten diogu.

SOIN HEZIKETAREN IRAKASLE BILKURA

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREn ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRIA
XULUP E. P. P. I. Z. A.

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza
PUBLIZITATEA Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **KOLABORATZAILIAK**
Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri,
Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia
Gorrotxategi, Sare Gurutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez,
Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen
Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte,
Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

- **BARREN** astekariko ataria zikinkeriaz beteta egoten da: hone-la aurkitu genuen gure erredakzioko ataria joan zen astean. Paper eta kartoi kontenedoretik zaborra kanpora aterata zegoen. Askotan, kontenedorean lekua egon arren, jendeak kanpoan lagatzen ditu kartoizko kaxak. Arratsaldero ume batzuk etortzen dira kartoi eta paperekin jolastera eta dena hankaz gora jartzen dute. Beste batzuetan, zabor kontenedoreak ate aurrean izaten ditugu lanerako sarrera oztopatuz. Langileak ez ezik, herritar asko ere etortzen dira BARRENera. Ingurunea errespetatzeko eskatu nahi dizuegu. Mila esker.



- **Herri erdigunerako sarrera 11:00etan itxi egiten dute:** "Herriko alde zaharra oinezkoentzat jarri nahi dute eta 11:00etan itxi egiten dute sarrera. Goizeko lehen orduetan sartu daiteke autoa Kultur Etxe ingurura, baina hortik aurrera ez dute lagatzen. Nik bezala, jende askok goizez lan egiten du eta erosketak egiteko arratsaldea geratzen zaigu. Ez zait ondo iruditzen kalea itxita egotea, erosketak egiteko autoa beharrezkoa da gaur egun. Azkenean, kalea itxita egoteak denori egiten digu kalte, bai erosleei eta baita saltzaileei ere, jendea aparkalekua dagoen supermerkatuetara joaten hasiko da-eta!".



- **Madalako errotanda ondoan dagoen semaforoak ez du ezertarako balio:** "Madalako errotanda berria egin dutenetik, ez du ezertarako balio han dagoen semaforoak. Zebrabidea gorago dago, beraz, oinezkoek ez dute semaforoa dagoen tokitik gurutzatzen. Autoak hor geldirik egoteak ez dauka zentzurik, denbora gal-tze hutsa da".



TXALOK

- **Pilar ikastetxeko guraso talde batek eskerrak eman nahi dizkie urriaren 12ko ekintzak antolatu zituztenei:** "Txalo bero bat Pilar Eguneko ekintzak antolatzen aritu zirenei. Aurtengoa ere oso ondo pasatu dugu, egun polita izan zen. Jarraitu horrela!".

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNIOREN *Luma*

Udazkeneko Olentzero

Bat, bi, hiru... poliki baina badoaz. Gorritu eta emeki-emeki errotzen dira. Arrazoi asko egongo dira udazkenean hostoak eror daitezzen, baina agian elur maluta zuriak izango dira horren erantzule. Zuhaitza biluzik uzten dute, bakar-bakarrik neguko ilunabar hotzetan. Ez dute izoztutako euri tanten ostikoz lurreratu nahi. Beraien kabuz amiltzen dira arima biluziak laztanduz ari balira modura.

Bat, bi, hiru... asko dira parke hutsetan hostoak zapalduz aritzen direnak. Presaka espaloi gainetan doazenak, neguko bota berriak estreinatu nahirik lurra astintzen dutenak edo zapata txikiak ezin altsatuz lehen pausoak ematen ari direnak. Denak, arima biluzien erreinuan paseatuz. Hala ere inorri ez zaizkio masailak gorritzen, inor ez da lotsatzen.

Baina bada harritu eta masailak gorritu dizkidan bat. Bere abarkarik gabe, alkandora eta brusarik gabe ikusi dut. Bizarrak estaltzen zion gorputz biluziaren freskura. Misteriotsua, berezia... begirada bitxia. Dagoeneko eskutitza idazten hasi beharko dugu, gure letrez bada ere bere jantziak josi ditzagun. Hosto idorrak biltzeari ekingo dio aurki, besterik ezean Mari Domingiri oparitzeko. Eta nik isilean maitatuko dut, masailak gorritu gabe; badakidalako bera dela nire udazkeneko olentzero.

Maialen Olazabal

[ZORTZIKO TXIKIAN]



EDURNE GABILONDO

ATSEDEN
KIROMASAJEKOA

• Zer teknika darabilzue?

Kiromasajea eta kiroletakoa, gehien. Laguntzeko, erreflexoterapia eta drenaje linfatikoa ere. Buztina, algak eta aromaterapia ere baditugu.

• Zertarako balio dute?

Sobrekarga eta stressa kentzeko, batez ere. Mina kentzeko eta prebenitzeko, azken batean.

• Zer eratako lesio edo gaitzak tratatzen dituzue?

Bizkarreko minak, batez ere.

• Zein eratako lesioak dira arruntenak?

Lunbagoak, tortikolisa eta tendinitisa.

• Ondo zaintzen dugu gure gorputza?

Orain askoz gehiago. Lehen gehiago estetika zaintzen zuten, kanpokoa, eta orain gehiago barrukoa. Baina denetik dago.

• Zer aholku emango zenuke?

Prebentzioa. Higiene posturala eta jaten duguna zaintzea ere garrantzitsua da.

• Beranduegi etortzen gara masajeak hartzera?

Lehen gehiago. Lesio bat pasatu duenak badaki gero hilean behin etorrira hobeto dabilera.

• Azpimarratzekorik?

Atsedena, elikadura eta posturak zaindu egin behar ditugu.

2008ko Gida Komertziala

Elgoibar eta Mendaro



lazko gidan zure negozioko telefonoa agertu ez bazen,
deitu zenbaki honetara **943 74 37 04** edo helbide honetara idatzi:
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

[AKORDATZEN NAIZ]



NIKO OSORO

1934an jaioa

«Erromerixak»

San Pedro baillaratik San Migelera juaten giñan erromerixara. Beste batzutan Usartzara, baiña haraiño ixa bi orduko bidia genduan. San Migelen, mutil laguna topau naban. Korbata eta guzti juaten zan erromerixara. Ni lotsatu egitten nitzan. Lagunak ere burla egitten zien. Sastria zakan anaixa, eta harek egitten ziozen trajiak: marroito bat zakan, eta ez zaban kentzen.

Zazpi urte nobixo ibili, eta 24 urtekin ezkondu nitzan Arraten, nobienbrian 14an. "Biaje de novios"era Madridera juan giñan. Nere gizonak arrebia monja zakan han, eta haura bisittatzera juan

giñan. Koinatuak eruan gindduzen Bitorixaraiño, eta handik trenian. Salaman-can ere pasau genduzen zortzi egun inguru.

Zorionsu izan naiz. Ezkondu ondoren kalera bajatu nitzan bizitzera. Gizona kamazerua zan, eta nik ere bertan egitten naban lan; bildotsak edo konejuak hiltzen noiznahi ibiltzen nitzan. Danetik egin dot.

Gehixo gustatzen jata kalia bizitzeko. Basarira egunak pasatzera gustora juango nitzake, baiña bizitzeko gogorra da. Ni kalia ibiltzekua naiz, andariña; etxian ahal danik gitxien.



[GURE BERBAK]

Morfologia (6): ZERTAZ 2

Aurreko astian instrumentalaren muga edo debeku batzuen gaiñian jardun gendun. Esan gendun ez zala erabiltzen beste kasu-markak bezain libre, edozein izenekin eta mugatuan nahiz mugagabian. Gurian behintzat, fosildutako egituretan bakarrik erabiltzen da.

Horrelakuetan ere, era orokorrian hitz egitten dogunian erabiltzen da, era abstraktuan, nolabait esateko. Behin abstraktutasunetik konkretutasunera pasatzen geranian, beste kasu-marka bat eskatzen dau gure hizkuntza-senak.

Hobeto ulertuko dogu adibidiekien:

Elgoibarren erabili geinke zaldiz, trenez, arratsaldez, era orokorrian hitz eginda.

Trenez bueltau nitzan Debatik.

Zaldiz juan nitzan San Migelera

Arratsaldez entrenatzen naiz Mintxetan.

Baiña zaldixa edo trena edo arratsaldia konkretatzen dogunian, zein dan esaten dogunian, orduan egokixagua dirudi -N kasu-markia erabiltzia:

[Bostetako trenian] bueltau nitzan Debatik.

[Castañaresen zaldixan] juan nitzan San Migelera.

[Atzo arratsaldian] entrenau nitzan Mintxetan

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

2007ko urriaren 8an, hil zen

Margarita Aguirregomoscorta Elizbururen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ANDRAZKOEN JANTZIEN TAILEN BATERATZEA

ELGOIBARKO 120 EMAKUMERI NEURRIAK HARTU DIZKIETE

Elgoibarko 120 emakumeri neurriak hartu zizkieten joan den astean, Osasun Ministerioa estatu osoko 59 udalerritan egiten ari den ikerketa antropometrikoa dela-eta. Jasotako informazio guztiari esker, arropen tailak bateratu egingo dituzte moda sektoreko hainbat enpresa garrantzitsuk.

Gabriel Krutzelaegi kalean inoiz baino mugimendu handiagoa izan zen urriaren 7tik 12ra, ez bakarrik gaztelekua edo ludoteka ireki berriak zirelako. Begoña Alamar eta Ana Serral Valentziako biomekanika institutuko biologek Elgoibarko 120 emakume hartu zituzten hango lokal batean, eta neurriak hartu zizkieten.

Osasun Ministerioak Estatu osoko 59 udalerriri aukeratu zituen ikerketa antropometrikoa egiteko, tartean Elgoibar, zozketaz hala gertatu zelako. Begoña eta Anak Estatuko iparraldean dihardute zeregin honetan eta emakume elgoibartarrak sendoagoak eta altuxeagoak iruditu zaizkie. Irudipena baino ez da. Azterketa oso zorrotza izan zen, eta datuak prozesatzea falta da oraindik.

Bi biologak pozik agertu dira emakume elgoibartarrekin. "Euri eta guzti etortzen ziren eta hori eskertzekoa da", adie-

razi dute. Izan ere, euren gorputza neurtzeko gerturazten ziren guztiak boluntarioak ziren, zozketaz ere aukeratuak.

Neurriak hartzeko sistemak zientzia fikziozkoa zirudien. "Arropak kendu eta euren emandako kulero, sujetadore eta txapel bat jantzi behar dira. Gorputzean pelota txiki batzuk pegatu eta tabla baten gainean hiru postura diferentetan neurtu ninduten laser batekin. Laserra goitik behera mobitzen da eta azkarra da", azaldu du 29 urteko AMk. Laserraren bidez, ordenagailuak pertsona horren hiru dimentsioak jasotzen zituen. Emakumeen pisua eta gorputz masa neurtzeaz gain, galderak ere egin zituzten "ohitura, elikadura, kirol eta lanei buruzko galderak egiten dituzte. Hori guzția PDA batean erregistratzen dute", dio du 41 urteko MCBk.

Norberak bere gorputzaren neurriak buruz dakiena baino gehiago jakin daitezke azterketa horren bidez. Hala ere, emakume bakoitzaren izen-abizenak desagertu egiten direla ziurtatu dute Valentziako bi biologek, datuak modu anonimo eta orokorrean erregistratzen direla.

Elgoibarko AMren iritziz, esperientzia ona izan zen. "Hogei minutu dira gutxi gorabehera eta motz egiten da. Lasai joan nintzen, jakinminarekin. Jasotako tratua oso ona izan da, pauso denak esplikatu zizkidaten eta gustura egon nintzen. Lokala beriz, txarto, bukatu gabe dago eta hotza eta zikina ikusten da, eskerrak ez zegoen hotzik egun hartan!

MCBk antzeko iritzia dauka "Bertara joateko erraztasunak eman zituztela uste dut, domeka batean hasi baitziren (urriaren 7an). Niretzat zoragarria izan da, beste egun batean beharbada ezin izango nintzatekeelako lanetik joan. Lokalaren baldintzek zur eta lur utzi ninduten. Eguraldi ona zegoen ni joan nintzenean, baina beste egunetan eguraldi txarra zela-

«Aldageletara bost taila hartuta joaten naiz. Batean 36 behar dut eta bestean beharbada 42»




EDERTASUN EREDU OSASUNGARRIAK SORTZEN

Osasun Ministerioa Estatuko moda sektoreko enpresa eta elkarte garrantzitsuenekin ados jarri da tailen arazoari irtenbidea emateko. Era horretan, neurriak bateratzeko konpromezua hartu dute.

Estatu osoan egiten ari diren azterketa antropometrikoak 12tik 80 urtera arteko 8.500 emakumeren neurriak jasoko ditu eta neurri normalenak zeintzuk diren jakin ahal izango da.

Osasun Ministerioak edertasun eredu osasuntsuak sustatu nahi dituzenez, 46 taila ez da berezia izango eta manikien jantziak ez dira 38tik beherakoak izango.

Hitzarmena Osasun Ministerioak, Estatuko moda sortzaileen elkarteak, konfekzio enpresen federazioak, Cortefielek, Inditexek eta Agrupacion Española de Genero de Punto taldeak sinatu zuten urte hasieran. Tailen bateratzea bost urte barru martxan izango dela iragarri dute.



Neurri horien bidez honelako egoerakin amaitu nahi da.

eta, hotz izateko moduan! Erabat egokitu gabe zegoen. Gainera, astebete eman behar zuten bertan... Leku egokiagoa ez aurkitzeak harritu ninduen”.

Tailekin inoiz arazorik izan ez badu ere, emakume horrek ikerketa onerako dela uste du. “Proposamena oso ondo iruditzen zait, ez delako normala denda betean praktikak erosterakoan 44tik 46rako aldega egotea”, gaineratu du.

Orohar, dendetan egoten diren arropen neurriak “ez zaizkit errealitatearekin bat datozenik pentsatzen”, dio AMk. Askotan izan ohi ditu arazoak “40 taila daukat eta normalean gerri inguruan estu gertzen zaizkit, askotan desesperatzen naiz. Eta Zara moduko dendetan praktikak erosterakoan aldageletara bost taila ezberdin hartuta joaten naiz! Batean 36 behar dut eta bestean beharbada 42!”.

Jantzi handi eta txikiak

“Ez da bakarrik marken arazoa”, uste du Ruth Garate dendariak. Marka berean ere

aldaketak izan ohi dira, modak aldatu egiten direlako. Garate jantzidendakoaren iritziz, “modeloak estuagoak badira edo tiro baxuagoa eramaten bada, tailajea beti txikiagoa da. Gure markek tailajea nahiko berdintsua daukate, baina batzuetan tailajek nahiko motz gelditzen dira”.

Markek ezartzen dute tailajea. “Guk taila handienera arte ekartzen dugu. Handiagoa balute ekarriko genuke”, gaineratu du. Hala ere, lehen ez zituzten taila txiki batzuk ekarri behar izan dituzte. “Gu ere harrিতa gaude taila txikiak gero eta gehiago saltzen direlako, dudarik gabe, pila bat saltzen dira”.

Arazoen ardura norena den jakitea zaila dela azaldu du Garatek. Hornitzaileek denboraldi batzuetan asmatu ezinik ibiltzen dira. Horrez gain, beste batzuk “ari dira saltzen zer mobida dagoen tailajearekin eta hori saltzen dutenak uzten dute edo propaganda egiten diete anorexika guztiei. Orduan niretzako ezin da gaineratu hori” gaineratu du.



[PROTAGONISTA]



HasierEtxeberria

Hasier Etxeberria idazle eta kazetari elgoibartarrak gidatzen duen Sautrela literatur saioak 200 atal egin ditu. 2000. urtean hasi zen saioak zortzi urte bete ditu dagoneko, eta hamaseigarren denboraldiari ekin dio uda ondoren. Literaturari ez ezik, letrei zein liburuei ere arreta berezia eskainiko die denboraldi berrian. Zapatuero ikus daiteke saioa, ETB-1en 14:40etik aurrera. Azaroaren 3an saio berezia egingo dute 200. atala ospatzeko. Euskal idazleentzako plaza izateaz gain, Sautrelak munduko idazleei ere lekutxoia egin asmotan jarraituko du.

[NOTIZIA]

ONCEko kupoitzarrak zazpi milioi euro laga ditu Debabarreneko bailaran

Urriaren 12a egun handia izan zen gure eskualdean, izan ere, ONCEko kupoitzarrak zazpi milioi euroko saria eman zuen. 83.796 izan zen zenbaki saritua. Sei milioi euroko sari bat eta 35.000 euroko 31 sari izan ziren guztira.

Zinegotzien partaidetza urria

Jose Alberto Neira ermuarrak Mendaroko Ospitaleko ate aurrean saltzen ditu egunero ONCE loteriako kupoiak goizez, eta arratsaldez, berriz, Ermuan egiten du lan bera. Ia zazpi urte daramatza kupoiak saltzen, baina joan zen urriaren 12ko eguna ez du erraz ahaztuko. Izan ere, 7.085.000 euro banatu zituen, berak saldu baitzuen kupoitzarreko zenbaki irabazlea (83.796).



Mendaroko Ospitalean bailarako eta inguruetakoko jendea ibiltzen denez, zaila da saria non banatua izan den jakitea. Eta horrelakoetan ohi denez, gainera, sei milioi euro balio duen kupoiaren jabeak ez du bere burua agertu nahi izan, oraingoz.

[ZENBAKIA]

15

Elgoibarko Udalak hamabost hektarea berdegune zaintzen ditu urtean, 25 futbol zelairen azalera, gutxi gorabehera. Datorren urtetik aurrera, Basarte ere euren esku geldituko da. Urtean 350.000 euro bideratzen dituzte herriko gunek berdeak txukuntzeko eta horretarako sei langile dituzte.

asteko [ARGAZKIA]



Altzolako beharrei beste arazo bat gehitu zaie azkenaldian: okupak sartu dira etxe honetan eta bizilagunak ez daude gustura. Zubibai Elkartekoek euren kezka azaldu diote Udalari, baina ez daude konforme jasotako erantzunarekin. Antza denez, tramiteak luze joko du eta ez da erraza izango bizilagun horiek Altzolatik bidaltzea. Badaezpada, Altzolan hutsik dauden etxeen jabeek ohar bat bidali diete, ateak ondo itxita eduki dituzten. Auzoa hobetzeko lanean tinko ari dira bizilagunak eta ez daude oso pozik Udalaren jardunarekin.

Enpresak euskalduntzeko helburuarekin "30+10" mintegia izango da IMHn



Bigarren urtez jarraian antolatu du IMHk "30+10" mintegia. Urriaren 25ean izango da, goizeko 9:00etatik aurrera. Enpresentzako 23 hitzaldi eskainiko dira goiz guztian zehar. Hainbat enpresatako hizlariak izango dira protagonistak. Euren esperientziak eta praktikak kontatuko dituzte, enpresetan euskarak leku badaukala azaltzeko asmoz.

Helburua

Erreminta Makinaren sektorearen inguruan diharduten enpresetara hurbildu eta euskaraz garatutako zerbitzuak, makinak

eta tresnak erakustea da helburu nagusia. Merkatuak eskaintzen dituen aukera desberdinak azalduko dira, besteak beste, mintegian.

Mintegiaren hasieran esker ona emango zaie lehenengo plan pilotuak abiatu zituzten enpresei. Bigarren atalean hizkuntza irizpideak azalduko dituzte lau enpresek eta azken zatian enpresentzako produktuak aurkeztuko dira.

IMHko arduradunek esan digutenez, iazko mintegira ehun lagun inguru joan ziren eta horietatik berrogei enpresa munduak.

[MOTZ-MOTZIAN]

Claudio San Martin enpresako greba amaitu da

Arriaga industriagunean dagoen Claudio San Martin enpresako langileek greba mugagabea hasi zuten urriaren 8an. Hainbat bilera egin ondoren eta enpresarekin akordio batera iristeko ezintasuna ikusirik, ELA sindikatuaren babesarekin hartu zuten grebari ekiteko erabakia. Azken egunotan zuzendaritzakoekin negoziatzen jardun dute eta badirudi akordioa lortu dutela. Langileek greba utzi dute eta lanean hasi dira.



Errosario kaleko jaietako zozketa

Errosario kaleko merkatariek erriak banatu zituzten euren kaleko jaietan, eta dagoeneko zozketa egin dute. Ondorengoak dira zenbaki irabazleak:

1. saria 2.832 (erreserba 1.084)
2. saria 2.245 (erreserba 0377)
3. saria 0703 (erreserba 0203)

1942an jaietako bazkaria

Urtero bezala, aurtengoan ere bazkaria egingo dute 1942an jaietakoek. Azaroaren 17an izango da, Sigma jatetxean. Bertara joan nahi duten guztiak azaroaren 10erako eman beharko dute izena. Horretarako 45 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 3035000726 0071040639 zenbakian.

EB-Aralar eta PSE-EE elkarrekin Udaleko oposizioan



EB-Aralar eta PSE-EEk proposamen batzuk elkarrekin aurkeztuko dituzte Udalean, nahiz eta gai batzuk bakoitzak bere aldetik landu. Hiru hilabeteko legegaldiaren ostean, ez daude oso pozik Gubemu Taldearekin. Oposizioa tinko egingo dutela azaldu dute eta Udalarri zenbait eskaera egin dizkiote: bat-bateko itzulpen aparatua pleno aretorako, industrigunee-tarako oinezko-bideak, Plaza Txikiko obrak marxan jartzea... Bestalde herritarrei dei egiten diete eskaerak helarazteko.

Inkesta

ONCEko kupoitzarrak sei milioi euroko saria banatu du Debabarreneko eskualdean.

Zer egingo zenuke sei milioi euro tokatuz gero?

IVEN BUSTAMANTE

Kamareroa

29 urte



“Venezuelan eta hemen inbertituko nuke. Negozioren bat ireki, dirua epe finkoan sartu bankuan eta errentetatik bizi. Arazo asko koponduko nituzke.”

M^{re} DOLORES TRIGUEROS

Kupoi saltzailea

63 urte



“Senide guztien artean banatuko nuke, batez ere, alaben artean. Nire bizimodua konpondu ondoren soberan izango banu, behartsuei emango nieke.”

JULENE LEON

Irakaslea

26 urte



“Ez dakit! Lana ez nuke lagako, gustuko dut, baina bidaiaren bat egingo nuke. Etxea ordaindu eta gastuak kendu. Hainbeste dirurekin ez nintzateke lasai biziko.”

TUBAL ETXABURU

Komertziala

25 urte



“Autoa erosi eta gero etxea. Dirua ondo inbertituko nuke, negozioren bat ipini eta ondo ateratzen bada, lanik egin gabe bizi. Bidaiatzeko aprobetxatuko nuke.”

[BAI ala EZ?]

Neurri nahikoak hartzen dira lan istripurik ez egoteko?

BAI %4

“Bai, hartzen dira. Enpresek diru asko inbertitzen dute segurtasun neurrietan, baina langileek ez dute kasurik egiten. Istripua gertatzen denean, enpresariari errua botatzea da errazena.”

EZ %96

“Ez. Urtean 95 hildako egotea izugarizko astakeria da Euskal Herriako. Oraindik ere lan asko daukate egiteko enpresek, sindikatuek eta gobernuak.”

Datorren asterako... **Bilboko Guggenheim museoak hamar urte bete ditu.**

Izan al zara noizbait Bilboko Guggenheim museoan?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozeelai.com

Edergintza

Laser medikuarekin ilea behin betirako kendu!



Gaur egun, gorputzeko ilearekin behin betirako amaitzeko irtenbide bikaina daukagu: laserra. Judith Edergintzaren eskutik jasoko dugu gaur depilazio sistema honi buruzko informazioa.

Zertan datza Diodo Lightsheer laserra?

Laserrak argi izpi kontzentratu bat sortzen du. Izpi honen indarra ilearen loditasuna eta kokapenaren arabera izaten da. Ilearn folikuloe-tako pigmentazioak argi izpi hori xurgatu egiten du eta ile hori ez da berriro haziko. Ilea zenbat eta beltzagoa izan, laserraren eraginkortasuna handiagoa da eta errazago hiltzen da ilea.

Zenbat laser saio behar dira?

Tratatu beharreko lekuren arabera, laser saioak hiru eta sei artekoak izan daitezke. Saio batetik bestera hiru hilabeteko tarte gomendatzen da.

Bigarren mailako efektuak

Gerta daitezkeen ondorioak "larriena" lehen mailako erreduraren bat da, hau da, mailarik txikieneko erreduraren bat. Eguneroko bizimoduan gertatzen diren erreduren modukoa da, etxean sendatzekoa. Normalean ez dute arazorik ematen.

Laser saioen aurretik

1. Saioa hasi aurreko 4-8 asteetan ezin da ulerik kendu laserra emango den lekuan. Saioak irauten duen artean ere ezin da argizariarik, pintzarik edo elektrolisirik erabili.



2. Saioa hasi aurreko lau asteetan ez brontzeatu. Ez eguzkirik, autobrontzeaturik ezta solariumik ere.
3. Saioen artean aitzurrarekin ilea moztea komeni da, batez ere, saioa baino hamabost egun lehenago. Ilea beltz eta indartsu egotea komeni da, tratamenduak emaitza hobek emango dizkigu.
4. Tratamendua aurpegian bada, makillajerik gabe joan.
5. Ilea ez dekoloratu.

Ondoren

1. Azala hidratatu, produktu birsortzaileak erabiliz.
2. Alkohola duten produktuak ez erabili.
3. Landutako zona ondo eta suabe garbitu, ur beroegia erabili gabe.
4. Aurpegiko tratamenduen kasuan, hurrengo egunera arte ez makilatzea komeni da.
5. Ondorengo bi asteetan gutxienez ez brontzeatu. Egun eguzkitsuetan babes totalako kremak erabili.
6. Azalean "postillatxoak" badaude, ez ukitu; soilik hidratatu.

Judith Zabala - Judith Edergintza

Judith
EDERGINTZA

Errosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118

▶ **MARIA LORENA PADILLA** BOLIVIA [HEGO AMERIKA]

«Bigarren umeari izen euskalduna ipiniko diogu»

DUELA LAU URTE IRITSI ZEN MARIA LORENA PADILLA ELGOIBARRERA. HAMAR URTEKO ALABAREKIN ETORRI ZEN ETA HANDIK HILABETE GUTXIRA IRITSI ZEN BERE SENARRA. BIZIMODU HOBEAREN BILA ETORRI ZIREN GURE HERRIRA. LAU URTE LEHENAGO LORENA-REN AMAK BOLIMA LAGA BEHAR IZAN ZUEN ETA EUREN NAHIA FAMILIA GUZTIA BERRIZ ELKARTzea ZEN. GAUR EGUN DENAK BIZI DIRA ELGOIBARREN.



▶ **Nola iritsi zinen Elgoibarrera?**

Nire ama hemen bizi zen eta berak animatu ninduen hona etortzeko. Lau urte egon ginen banatuta. Boliviatik alde egin zuenetik ez ginen elkarrekin egon, telefonoz hitz egiten genuen soilik eta elkarriketa guztiak negar zotinka amaitzen genituen. Ezin genuen denbora gehiago banatuta egon eta hona etortzea erabaki nuen. Due-la lau urte iritsi nintzen hona, nire alabarekin.

▶ **Gogorra egin zitzaizun zure herrialdea laga-tzea?**

Ez gehiegi. Nire amak eta ahizpa gazteak Boliviatik alde egitea askoz latzagoa izan zen. Harreman estua geneukan eta eurak hain urrun egonda Bolivian bizitzea oso gogorra egiten zitzaidan. Faltan botatzen nituen egu-nero, uneoro. Denbora gutxira nire anaia gaztea etorri zen Elgoibarrera. Hutsunea handiagoa zen orduan. Ge-roago nire alaba eta ni etorri ginen, nire senarra han la-gata. Hori zan zen tristeena. Amama izugarri maite du ni-re alabak, beraz, ez zen gogorra izan Elgoibarrera etor-tzea. Hilabete gutxira etorri zen nire senarra eta nire anaia nagusia izan da hona etortzen azkena. Orain de-nok bizi gara hemen eta zoriontsu gara.

«Elgoibarko lasaitasuna gustatu zait gehien»

▶ **Nola hartu zaituzte gure herrian?**

Oso ondo hartu gaituzte. Lasai etorri nintzen, amak oso ondo hitz egiten zidan Elgoibari buruz. Herri txikia eta la-saia zela esan zidan, eta halaxe da. Lasaitasuna izan da gehien gustatu zaidana. Alaba parkean joalsean utzita, la-sai joaten naiz edonora. Bolivian ezin da hori egin, delin-kuentzia asko dago. Elgoibarko jendea oso jatorra da, ire-kia. Nire ama Madrilen egon zen lehenengo eta esan di-



danez, arrazista gehiago dago han. Nik ez dut arazorik izan hona etorri naizenetik. Berhala hasi nintzen lanean eta oso ondo moldatu naiz. Nire alabak ere lagun onak egin ditu

► **Izan al duzu Euskal Herria ezagutzeko aukerarik?**

Bai. Ahal dugunean ibiltzen gara hara eta hona bazterrak ezagutzen. Mendiak oso ederrak dira, paisaia oso berdea da eta asko gustatzen zait. Udan hondartzan eta igerilekuetan ibili gara eta izugarri gozatu dugu. Donostia eta Bilbo hiri politak dira, baina Elgoibar bezalako herri txikiak nahiago ditut.

► **Zer moduz moldatzen zara euskaraz?**

Oso gaizki! Hitz gutxi batzuk ulertzen ditut, baina oso zaila egiten zait. Nire alaba ikastolara joaten da eta primeran hitz egiten du euskaraz. Ulertu, irakurri eta hitz egiten ikasi du. Niri ere gustatuko litzaidake euskara ikastea.

► **Nolako da Boliviako bizimodu?**

Erabat desberdina. Lurralde pobrea da, lan gutxi dago eta gainera oso gutxi ordaintzen dute. Orain dagoen presidentarekin badirudi egoerak hobera egingo duela, baina orain artekoekin egiara zaila zen. Gauza asko prometituta dituzte, baina bete oso gutxi. Gu Santa Kruz hirian bizi ginen, Boliviako alde tropikalean. Klima aldetik zoragarria da; epela eta euritsua. Hona etorri arte ez nuen elurra ezagutzen. Hemengo klimara egokitzea ez da erraza izan; neguan hotz handia egiten du. Horrez gain, emakumeek oso berandu izaten dituzte umeak hemen. Nik hamasei urte-

rekin eduki nuen lehenengo alaba eta bigarrenaren zain nago.

► **Etorkizunerako asmorik?**

Momentuz hemen geldituko gara, ni zoriontsu naiz. Hemen irabazitako diruarekin lur sail bat erosi dugu Bolivian eta egunen batean bertan eraikiko dugu gure etxea. Nire senarraren familia guztia Bolivian bizi da eta etorkizunean hara joango gara, baina oraindik ez. Nire semea jaiotzen denean, senarraren ama etorriko da denboraldi batez gurekin bizitzera. Biloba ezagutu eta, batez ere, bere semearekin egoteko gogoia dauka. Izen euskalduna ipiniko diogu! Bestalde, hemen aukera gehiago dago gauza guztietarako. Nire alaba Unibertsitatera joatea nahi dut. Berak, akaso, ez du Boliviara itzultzerik nahiko. Pena demasa hartuko dut hori gertatzen bada, baina bere nahia errespetatuko dut.



BOLIVIA

- **Hiriburua:** La Paz
- **Azalera:** 1.098.581 km²
- **Biztanleria:** 8.328.700 (2000)
- **Dentsitatea:** 7,6 km²ko
- **Bizi itzaropena:** 64 urte
- **Erljioa:** Katolizismoa
- **Hizkuntza:** gaztelera, ketchua eta aymara.



GAZTIA NAIZ

10 tsaGA BE

Tatiana Claros 15 urte

Txoria bazina, nora egingo zenuke hegan?
Leku lasai batera, lasaitasuna gustatzen zait.

Hego haizeak eragiten al dizu?
Bai, alaiago egoten naiz hego haizea dabilen egunetan.

Uda ala negua duzu nahiago?
Uda, eguraldi ona eta hondartzara joatea gustuko dut.

Laster ordua aldatuko dute. Ba al dakizu zertarako?
Ez. Udako ordutegia nahiago dut, neguan oso goiz iluntzen du.

Zertarako aprobetxatuko zenuke gauaren iluntasuna?
Lagun batekin eseri eta lasai-lasai sekretuak kontatzeko.

Bizitako uneen artean, zein berreskuratuko zenuke?
Lagunekin Zumaiara egunpasa joan nintzen eguna.

Gizona izan nahi zenuke, zertarako?
Ez nuke gizona izan nahi.

Lotsa gehien pasatu duzun egoera?
Kalean erori nintzen eguna. Denak niri begira geratu ziren.

Ligatzeko, lehen pausua eman ala zain egon?
Mutila zein den kontuan izanik, bata ala bestea egiten dut.

Parrandak alkoholik gabe?
Bai, alkoholik gabe ondo pasa daiteke.

Prensa arrosa ala politika?
Prensa arrosa. Politika oso aspergarria iruditzen zait.

Mendaroko alkatea bazina zer egingo zenuke?
Zinema jarriko nuke, asko gustatzen zait.

Eta lehendakaria bazina?
Ez dut sekula horretan pentsatu.

Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?
Gauza batzutan ez, baina beste askotan bai.

Ezkonduta ala elkarrekin bizi?
Ezkonduta. Elizaz ezkonduko nintzateke.

Etorkizunerako planik?
Medikua izan nahi dut.

BARREN

jakiteko...

ELGOIBARKO LAU IKASTETXE ZERNOLA OLINPIADAN



Elhuyar Fundazioak www.zemola.net atariaren bitartez martxan jarri du ikasle gazteenzat antolatzen duen zientzia-olinpiada, eta, aurtengoan nobedadez josita dator. Parte hartzen duten ikasgelek euren bloga izango dute www.zemola.net web gunean eta han argitaratuko dituzte Olinpiadan planteatuko zaizkien proben erantzunak. Elgoibarko lau gelak hartuko dute parte olinpiada honetan: Elgoibar Ikastolako bi gela eta Elgoibar BHI Institutuko beste bi. Hilaro, proba honena egin duen ikasgelak sari bat jasoko du. Olinpiadaren amaieran puntu gehien jaso duten bi ikasgelek bi eguneko txangoa irabaziko dute.

BILUZIK SEXOLOGIA ZERBITZUA POSTA ELEKTRONIKOZ

Biluzik Sexologia zerbitzuak posta elektronikoko bidez eskainiko du zerbitzua aurrerantzean. Eider Goiburu sexoloak erantzun- goko ditu jendearen kontsulta guztiak. Interesatuek biluzikzerbitzua@yahoo.es helbidera bidali ditzakete euren galderak.

Horrekin batera, urtean zehar hainbat ekintza burutuko ditu Biluzik Sexologia Zerbitzuak. Horien helburu nagusia gazteei sexuaren gainean aholki eta informaziorik zehatzena eta zabalena eskaintzea izango da.

ION GURRUTXAGAK IRA-BAZI DU "GOMENDATZEN DIZUT" LEHIAKETA



Gazte Informazio Guneak antolatutako "Gomendatzen dizut" lehiaketa Ion Gurrutxagak irabazi du. Pragara egindako bidaiari buruzko gomendioak aurkeztu zituen lehiaketa honetara. Ekonomikoki merkea da bertara bidaiatzea eta musika eskaintza handia dago. Joan zen astean egin zuten zozketa eta bera suertatu zen irabazle. Ion Gurrutxagak i-pod baten edo landetxe bateko egonaldiaren artean aukeratu beharko ditu. Guztira lau lagunek hartu dute parte lehiaketan.



gazte
informazioa

EKINTZAK EPAIMAHAIA

• Gazte epaimahaia izan zaitez fantasiatzko eta beldurrezko zinemaren XVIII. astean. 18 eta 30 urte bitarte badituzu eta zinea gustuko baduzu, urriaren 26tik azaroaren 3ra arteko arratsalde guztietan izango duzu kortoak eta filmak ikusteko aukera! Izen ematea urriaren 23a baino lehen egin behar da.

HITZALDIAK KONTSUMO GELA

Bermeztu kontsumitu. Kontsumitzaileen- tzako Prestakuntza Programa baten barruan bilduta dago hitzaldi hori, eta ho-

nako hau du helburutzat: informazio baliagarri eta gauzatzeko erraza eskaintzea kontsumitzaile gisa eraginpean hartzen gaituzten erabakietan. Hitzaldia jende guztiari bideratuta dago. Urriaren 25ean izango da Donostian. Hitzalaria Iñaki Velasco, EKAKo lege-aholkularia. Hitzaldian parte hartzeko baieztapena beharrezkoa izango da, Kontsumo Gela Donostia programaren telefonora deituta: 943 02 25 90

LEHIAKETAK SOS ARRAZAKERIA III. ARGAZKI LEHIAKETA

Gipuzkoako SOS Arrazakeriak, immigrazioari buruzko 3. argazki lehiaketan parte hartzera gonbidatzen zaitu Donostiako Udalak Donostia Munduen Artean antolatutako ekitaldien barne. Informazio gehiago: 943 32 18 11 edo www.mugak.eu

TAILERRAK

SERIGRAFIA

Donostiako Arteleku aretoan serigrafia tailerra eskainiko da urriaren 22tik 26ra bitartean. Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara eskainiko dira klaseak. Informazio gehiago: 943 45 36 62, arteleku@gipuzkoa.net <http://www.arteleku.net>

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 741 461



Ordutegia:

Astelehenerdik ostiralera:

17:00etatik 20:00etara

Astelehenak, asteazkenak eta ostiralak:
10:30etik 13:00etara.

Ludotekako izena emateko epea zabalik

Eguaztenean ireki zen ludotekan izena emateko epea. Urriaren 31ra arte, 1995-2002 bitartean jaiotako umeen izenak eman ahal izango dira. Izenemate ordua 15:30etik 20:00etara izango da Ludotekan bertan (Gabriel Krutzelaegi, 6). Argibide gehiagorako, deitu 943 74 88 83ra. Dena den, gurasoentzako batzar informatiboa egingo da urriaren 23an, 18:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bestalde, gaztelekuaren inguruko zehaztasunak ere emango zaizkie gurasoei ordubete geroago, leku berean.

Dantza ikastaroak

Haritz dantza taldeak fandango eta arin-arin ikastaroak eskainiko ditu urriaren 22tik aurrera. Izena emateko gaur arratsaldean bertan jo daiteke Inazio Bereziartua Musika Eskolako lokaletara. Aslehen eta eguaztenean hasiberrientzako ikastaroak izango dira. Esperientzia dutenek martitzen eta eguenetan jasoko dituzte klaseak.

Gurasoentzako jolas ikastaroa azaroan hasiko da

Udaleko Euskara Sailak, euskararen transmisioa bultzatzeko asmoz, hiru eta sei urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzako jolas ikastaroa antolatuko du azarorako. Gurasoek ez ezik adin horretako haurren zaintzaileek ere parte har dezakete.

Domekako final laurdenetan izango da Uxue Alberdi

Gipuzkoako bertsolari txapelketako final laurdena jokatu da domekan Irungo Amaia antzokian, 17:00etatik aurrera. Uxue Alberdik elgoibartarren babesa jasoko du. Jon Martin, Iñigo Izagirre, Unai Muñoa, Aitzol Barandiaran eta Josu Oiarzabalaren aurka neurtuko ditu indarrak. Saio berezia espero da. Bertsolari guztiek maila oso ona erakustez gain, elkarrekin sari kantatutakoak dira eta ezeren gainerik elkarren lagunak dira. Gustura eta eroso kantatuko dute, beraz, eta saio polita bermatzen du horrek.

Madrilgo komikigile batek eskuratu du Kokoeren lehiaketako lehen saria

El *Perrito de Mierda Estrella de la Television* izena darama Kokoek aurtentzako antolatutako XII. komiki lehiaketako lan irabazleak. Madrilgo Marta Alonsok egin du. Gaur 19:00etan egingo den sari banaketan, 500 euroak eskuratu ditu. Horrez gain, bere lana eta gaitzako partehartzaileena Kultur Etxeko erakusketan gelan izango dira ikusgai gaurtik urriaren 28ra bitartean.

Bigarren saria, 300 eurokoa, Valladolideko Jesus Maria Agudok irabazi du, *Trozo de Caca Tom* lanarekin. Hirugarrena, berriz, 200 eurokoa, Trapagarango Amaia Ballesterosek, *Jau indiararen Historio Basatia* komikiarekin (ondoko argazkian ikus daiteke). Aurtengo akzesita sari-tu gabe utzi dutela iragarri dute Kokoeko arduradunek.

Azkenean hamahiru lan aurkeztu dira konfirmatu du Kokoek. Horietako bi



koloreetan jaso dituztenez, lehiaketatik kanpo laga behar izan dituzte.

Komikiak inguruko herri batzuetatik jaso badituzte ere, urrutiko lanak jaso direla nabarmen daiteke, hala nola, Avilés, Madril, Valladolid, Cordoba edo Sevillatik. Lanen izenburu guztiak www.kokoe.org webgunean bisita daitezke.

Parrokiak Peruko Andeetako musika hartuko du



Takillakta Peruko musika taldeak kontzertua eskainiko du datorren martitzenean, urriaren 23an, San Bartolome Parrokian, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Misio Taldeak eta Elizbarrutiko misio ordezkaritzak antolatuta.

Takillakttak Peruko Andeetako musika egiten du. 1983an sortutako talde horrek kantuen bidez fedearen eta ebanjelioaren berri eman nahi du. Mundu zabalean hainbat kontzertu eskaini ditu talde horrek, Amerika eta Europan batez ere. Euskal Herrian bira egiten ari dira azken aldi honetan. Dagoeneko zazpi diska merkaturatu ditu eta abendurako "Navidad en America" izenburupean zortzigarrena kaleratuko duela iragarri dute.

113.711 bisita

3.360 komentario

483 notizia

203 harpidedun

www.elgoiBARREN.net

Urriaren 23an



ELGOIBARAKO ZARRA
KULTURAREN ERKATEA

SAN PEDRORAKO XVI. TXIRRINDULARI IGOERA

Vicente Gonzalez galziarrak irabazi du San Pedrorako igoera



L ehengusuaren ezkontzara etorri zen Vicente Gonzalez Galzitik eta bide batez, San Pedrorako txirrindulari igoeran hartu zuen parte. 14:07 denborarekin bera izan zen helmugan lehenengoa. Josu Uriarte bizkaitarra sartu zen bigarren lekuan bi segundora eta hirugarren postuan iritsi zen Iñigo Ortuoste elgoibartarra 14:25 denborarekin. 36 lagunek hartu zuten parte guztira eta ikusleak ere mordo bat gerturatu ziren San Pedroko bailarara. Galziarrak denbora bikaina lortu zuen arren, Iñigo Lariz elgoibartarrak dauka oraindik proba honen errekorra, 13:21 denborarekin.



ELGOIBARTAR ETA MENDAROARREN SAILKAPENA

Izena	Denbora	Izena	Denbora
1. Vicente Gonzalez	14:07	19. Iñaki Gorosabel	18:06
2. Josu Uriarte	14:09	20. Mario Romero	18:36
3. Iñigo Ortuoste	14:25	21. Enekoitz Elorza	19:17
4. Jose Mari Fernandez	14:50	22. Rikardo Huidobro	19:20
5. Beñat Zafra	15:22	23. Alberto Mujika	19:48
6. Jorge Gonzalez	15:26	24. Imanol Cid	20:40
7. Andoni Ortega	16:02	25. Raul Santamaria	20:44
8. Ignacio Diaz	16:13	26. Eneko Ramos	20:47
9. Javier Elgezua	16:33	27. Antxon Lendinez	21:22
10. Igor Rey	16:38	28. Iban Iriondo	21:23
11. Tomas Arizaga	16:38	29. Asier Arregi	21:40
12. Aitor Orbea	17:10	30. Martin Bernedo	22:04
13. Jose Juan Barrenetxea	17:15	31. Mikel Ugartetxea	22:58
14. Mikel Lopezosa	17:24	32. Agustin Gomez	23:09
15. Igor Egaña	17:38	33. Xabier Aristondo	23:49
16. Andoni Elgezua	17:47	34. Mikel Hernandez	24:02
17. Migel Anjel Urkiza	17:58	35. Juan Ramon Bellon	24:02
18. Gorka Iriondo	18:06	36. Jose Ramon Frontaura	25:07

ESKERTZA

2007ko urriaren 16an hil zen
Mariano Elustondo Aizpiriren sendiak
 bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKOLA KIROLA

Asteburu honetan hasiko da Elgoibarko Eskola Kirola

Elgoibarko Eskola Kirolak bihar ekingo dio 2007-08 ikasturteari. Orain arte benjamin eta alebin mailako umeek bakarrik parte hartzen zuten egitasmo honetan, baina aurten aurrebenjamin mailako umeak ere arituko dira. Sei eta zazpi urteko ume hauek astean bi saio izango dituzte psikomotrizitatea jolasen bitartez lantzeko eta ez dute lehiaketetan parte hartuko. Benjamin eta alebin mailakoak taldekako kiroletan lehiatuko dira. Txapelketak 8 jardunaldikoak izango dira eta kirol batekin bukatzen dutenean kirolez aldatuko dute, eskubaloia, saskibaloia eta futbola uztartuz. Deba, Mutriku eta Mendaroko taldeen aurka lehiatuko dira.

Infantilentzat ekintza bereziak

Infantil mailakoentzat jarduera bereziak antolatuko dira hilabetero. Hasteko, Txuri Urdiñeko izotz jauregira joango dira bihar.



Eskola Kirola programari indar berria emateko asmoarekin Eskola Kirolaren Kontseilua sortu da aurten eta bera arduratuko da egitasmo horren kudeaketaz. Koordinazio lanetan gorputz-hezkuntzan lizentziatua den Xabier Zabaleta arituko da.

Soraluzeko mendi ibilaldia izango da urriaren 27an



Elgoibarko mendi itzuliaren antzeko ibilaldia antolatu du estreinakoz Soraluzeko Mendi taldeak. 37 kilometroko bidean Soraluzeko mendi eta inguruneak zeharkatuko dituzte parte hartzaileek. Besteak beste, Krabelinaitz, Kurutzebakar eta Atxolin gailurrak igo beharko dituzte. sei euroko prezioa izango du parte hartzeak. Izena emateko 943751029 telefonora deitu daiteke, martitzen edo eguenean iluntzeko 20:00etatik 21:00etara. Plaentxia@gmail helbidean ere eman daiteke izena. Trukean, kamiseta oparituko diote parte hartzaile bakoitzari.

Karabina tiraketa erakustaldia

Altzolako Zubibai Elkartek antolatuta, karabina tiraketa erakustaldia izango da datorren domekan, urriaren 21ean, Altzolako frontoian. Euskadiko Field Tarjet Elkartearen eskutik, karabinak eskaintzen dituen aukerak ezagutu ahal izango dira.

Goizeko 11:30ean hasiko da ekitaldi hau. Lehenengo Field Tarjet elkarteko profesionalek hartuko dute parte eta ondoren, ikusleen txanda izango da. Nahi duten guztiek karabinarekin tiratzeko aukera izango dute.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 1 - Zarautz 0 (3. maila)
Lazkao 2 - Elgoibar 0 (erreg)
Anaitasuna 4 - Elgoibar 0 (Jub)
Elgoibar 4 - Eibar 3 (Kad.)
Elgoibar 7 - Eibartarrak 0 (Inf)
Urola 3 - Elgoibar 0 (Nesk.)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle 21 - Elorrio 16 (Sen. nes.)
Pneumax 20 - Pulpo 24 (Jub. mut.)
Tecnomeca 11 - Pulpo 31 (Kad. mut.)
Ereintza 20 - Cometel 24 (Jub. nes.)
Ereintza 9 - IMH 24 (Kad. nes.)

ARETO FUTBOLA

Inter 1 - Kenci 5 (Euskal Liga)
Elgoibar 2 - Relojes Mondaine 5 (Jub.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan
Zapatua, 20
12:30 Elgoibar - Lagun Onak (Neskak)
16:00 Elgoibar - Bergara (Jub.)
Domeka, 21
11:30 Elgoibar - Amaik Bat (Inf.)
18:30 Elgoibar - Amaik Bat (Erreg.)

ESKUBALOIA

Kiroldegian
Zapatua, 20
10:00 Caldereria Lili - Aterpe (Inf. nes.)
11:00 Astigaraga - Aloña Mendi (Inf. nes.)
16:00 Cometel - Pulpo (Kad. nes.)
17:30 IMH - Pulpo (Kad. nes.)

ARETO FUTBOLA

Kiroldegian
Domeka, 21
12:30 Kenci - Sasikoa B (Euskal Liga)

PILOTA

Ikastolan
Barixakua, 19
21:15 Lagunak - Añorga (Kad.)
22:00 Lagunak - Elordi Herrigintza (Jub.)
22:45 Lagunak - Añorga (Nag.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Pisua salgai Pedro Muguruzan. 65m². Logela, berogailu zentrala. Eguzkitsua, dena kanpoaldera. Merke. ☎ **661974330/943743530**
- ▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igogailua berritua. ☎ **628115677**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteleku txiki bat. ☎ **637124868**

- ▶ Buhardilla salgai Altzolan. ☎ **695776373**
- ▶ Etxea salgai Bernardo Ezenarro 9an. 80m². Igogailua, gas naturala leihoraino, ganbara 15m²koa, berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria. ☎ **665735660**
- ▶ Etxe handia salgai Plazan. Berritua. Prezio interesgarria. ☎ **619409273**

ALOKAIRUA

- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **646832693**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Lokal merkea hartuko nuke. ☎ **630700272 (Jenny)**
- ▶ Lokala salgai erdialdean. 25m². ☎ **677731061 (Alfonso)**
- ▶ Marradun garajea alokatzen da herri erdian, Santa Ana 2an. ☎ **943743427**
- ▶ 200m² eta 400m²ko pabilioiak salgai Sigman. Beheko solairua. ☎ **619409273**
- ▶ Garajea alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu. ☎ **669022573**

[AUTOAK]

- ▶ Opel Astra DTI 2.0, 16v salgai. 7 urte, 170.000km. Egoera onean. 5.500 euro. ☎ **619582582**
- ▶ Opel Astra 1.6 autoa salgai. 16v. Merke. ☎ **697363407**
- ▶ 250cc Suzuki RMX motorra salgai. 1.300 euro. ☎ **646279610 (Mikel)**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Cocker Spanier ingeles txakurkumeak salgai. ☎ **635747785**
- ▶ Borda erosiko nuke. ☎ **676402851**
- ▶ Dalmata arrazako txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. ☎ **636135319**

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **687362773**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **637966749**
- Neska goizez etxeak garbitzeko prest. ☎ **636303262**
- LHko klase partikularrak ematen dira. ☎ **686197248**
- Emakumea sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ **654610231**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. Esperientziaduna. ☎ **646235195/636362251**
- Emakume arduratsua etxeak garbitzeko prest. ☎ **943743251**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **671486769**
- Gurutze puntuan lanak egiten ditut: jaiotze, jaunartze edo ezkontza koadroak, mantak, toailak... ☎ **676444171**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Ospitalean edo etxean. ☎ **693010168**

- 40 urteko gizon euskalduna lanerako prest. Gida baimenarekin. ☎ **661225149**
- Mutila ostalaritzan edo nagusiak zaindu lan egiteko prest. ☎ **639945935/943531608**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **678117022**
- Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ **658164787**
- Emakumea nagusiak zaindu, garbiketarako eta plantxa egiteko prest. ☎ **639505373**
- Neska lanerako prest. ☎ **696204053**
- Neska lanerako prest. ☎ **669064252**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **638333816**
- Mutila pinturan edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ **638333816**
- Neska lanerako prest. ☎ **646832693**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **699813826 (Beti)**
- Neska lanerako prest. ☎ **660529146**

- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest. ☎ **671158943 (Sofia)**
- Emakumea umeak zaindu edo dendan lan egiteko prest. ☎ **666111032 (Cátia)**
- Ingeles klaseak ematen dira. Maila guztiak. ☎ **606733850**
- Enpresa eta merkataritza-ingeles klaseak eskaintzen dira. ☎ **696964069**
- Mutila pinturan, altzariak bamiatzan edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **638333816**
- LH eta DBH.I. eta 2. mailako klase partikularrak emango nituzke urtik aurrera. ☎ **943742855**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **699609190**
- Neska garbiketarako edo kamarera lanetarako prest. ☎ **627831477**

ESKAITZA

- Illeapaindegirako neska edo mutila behar da. Esperientzia. ☎ **637302318**
- Kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ **688623668**

- Bitxiak barruko erropak eta lurin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak. Ez da esperientziarik behar. ☎ **607824892**
- Kamareroa behar da. ☎ **943743196**
- Parafarmazian lan egiteko dietista behar da. ☎ **686045321**
- Kamareroa behar da. Asteburuetarako. ☎ **635751642**
- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**
- Neska behar da aste barruan, 12:30etik 15:30era taberman lan egiteko. Euskalduna, 28 urtetik gorakoa. ☎ **943741416**

ABISUAK

- 1966an jaiotako ikastolako ikas-kideek bazkaria egingo dute urriaren 27an Aubixan. 20 euro sartu Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0009 14 0091116747
- Upaitza inguruan poltsikoko telefonoa aurkitu nuen, Nokia 2610. Udaltzaingoa laga dut.
- Katu pertsiarra oparitzen dut ezin dudalako zaindu. ☎ **647067666 (Sorkunde)**

II. URTEURRENA

2006ko urriaren 16an hil zen, 88 urte zituela,

*Txomin Osoro Barrenetxe*aren oroimenez

I. urteurreneko meza izango da, larunbatean, urriaren 20ean, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren Parrokian.
Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Maitane Gallastegiri** hilaren 16an 9 urte egin zituelako. Familiakoen eta, bereziki, ahizpa Maialenen partez.



▶ Zorionak, **Garazil** hamaika mila muxu familiako guztien partez.



▶ Zorionak, **Unai** Bost urteko piratarri pa handi bat etxekoan, bereziki, Oier eta Leireren partez.



▶ Zorionak, **Anel** Familiakoen partez, ondo pasa urriaren 22an.



▶ Zenbat **Kristinari** astelehenean 12 urte egingo dituelako. Muxu handi bat. Segi horren jator! Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Nahial** Ondo pasa zure egunean. Familiakoen eta batez ere, Danel, Unax eta Maddiren partez.



▶ Zorionak, **Ainhize**, urriaren 21ean 7 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak zure 11. urtebetzean. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Noral** 9 urte! Ondo pasa zure egunean. Gurasoen partez.



▶ Zorionak, **Imanol**, zure 8. urtebetzean. Segi horren jator! Muxu potolo bat, bonbon!



▶ Zorionak, **Iker**, familiako guztien partez.



▶ Zorionak, **Paula eta Sebastian!** Muxu bana zuen urrezko ezteietan.



▶ Zorionak, **pareja!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Koadrilakoen partez.

II. URTEURRENA



2007ko urriaren 17an hil zen, 57 urte zituela,
Juana Barrutia Mancisidorren oroimenez
 I. urteurreneko meza izango da, igandean, urriaren 21ean, goizeko
 10:30ean Elgoibarko San Bartolome deunaren Parrokian.
 Joango zaretenoi eskerrak aldeztatik.



Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



21 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

19
20
21
22
23
24
25
26

GUARDIA 24 ORDUZ

Bidasolo
Yudego
Yudego
Fernandez
Zabaleta
Yudego
Etxebarria (Erosario)
Ibañez

* Beti dago guardiako farmazia
Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
Larrialdiak 943 46 11 11
Planning-a 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
DYA (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
Odol Emaileak 943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
Hirigintza 943 74 43 84
Epaitegia 943 74 16 30
Hazien 943 74 44 14
Mendaroko Udala 943 03 32 82
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
Udaletxea 943 74 10 50
Udaltzaingoa 943 74 13 94
Debemen 943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 74 04 42
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 74 08 98
Bizkaibus 902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria 943 74 41 12
Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Kirolegia 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
Liburutegia 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta 943 74 43 15
Parrokia 943 74 08 42
Postetxea 943 74 15 47
Gazte Informazioa 943 74 14 61
KZ gunea 943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Institutua • Arreiture 943 74 80 19
• Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

aek
euskaltegiak 25 urte
"Euskara nire bururako,
niretzako ikasdi dut.
Betidanik gustatu
zait, hizkuntza
bezala oso
aberatsa da."
Elgoibarko **aek** euskaltegia
Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aek.org

Malape taberna
@rain astegunetan
© Malape
Elgoibarko 943 74 19 43
San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

URKIDI
AHOLKULARITZA
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Liberty
Aseguruak
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 79
Kalamua, 12

[19 BARIXAKUA]

17:30 "ADARBAKAR URDINA"
Txotxongilo ikuskizuna
Taldea: Bihar Txotxongilo Taldea
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Atxutxi eta Gaz-T

18:00 INGENIARITZA ESKOLAREN INAUGURAZIOA

Aurtengo ikasturteari hasiera emango diote IMHn.

19:00 KOMIKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA ETA ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Astelehenerik larunbatera, 19:00-21:00.

Domeketan; 12:00-14:00
Urriaren 28ra arte ikusgai
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Antolatzailea: Kokoe

18:00 INGENIARITZA ESKOLAKO IKASTURTE HASIERAKO EKITALDI OFIZIALA IMH-N

IMHn

22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "La Masai blanca"
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Antolatzailea: Haizea E.T.

[21 DOMEKA]

11:30 KARABINA-TIRAKETA
Altzolako frontoian
Antolatzailea: Zubibai Auzo Elkartea.

[23 MARTITZENA]

18:00 LUDOTEKAKO BATZARRA
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
Gurasoentzako batzar informatiboa ludotekari buruz.

19:00 GAZTELEKUKO BATZARRA
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
Gurasoentzako batzar informatiboa gaztelekuari buruz.


20:00 PERUKO MUSIKA
Parrokian.
Peruko Takillakta taldearen saioa.

[25 BARIXAKUA]

9:00 "30 + 10" MINTEGIA
IMHn
Enpresak euskalduntzeko helburuarekin
Enpresentzako 23 hitzaldi eskainiko dira

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Sigo Como Dios»

19, barixakua: 22:15
20, zapatua: 19:00-22:15
21, domeka: 19:00-22:15
22, astelehena: 21:30

«Doraemon eta dinosaurio txikia»

21, domeka: 16:30
«Borrachera de poder» (Z.K.)
25, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«El orfanato»

19, barixakua: 19:30-22:15
20, zapatua: 17:00-19:30-22:15
21, domeka: 17:00-19:30-22:15
22, astelehena: 19:30-22:15
23, martitzena: 19:30-22:15
24, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Sigo como Dios»



Zuzendaria: Tom Shadyac.
Antzezleak: Steve Carell,
Morgan Freeman.

Evan Baxter Ameriketako Estatu Batuetako kongresista izateko aukeratu berri dute eta Virginiako iparraldean dagoen urbanizazio polit batera etxez aldatu da. Behin han dela jainkoa bere aurrean agertu eta Noeren kutxaren tankerakoa erakitzeke aginduko dio.

«Borrachera de poder» (Z.K.)



Zuzendaria: Claude Chabrol
Antzezleak: Isabelle Huppert,
François Berléand.

Jeanne ondasunen bidegabeko eralgitze kasu konplexu bat argituzko ardura duen instrukzioko epailea da. Ikerketek eta galdeketek aurrera egin ahala, boteretsuagoa dela konturatuko da epailea. Noraino erabil dezake botere hori bera baino boteretsuagoi aurre egiteko?

Atzera hegira



1984. urteko erretratu zahar hau **Lucia Arrietak** laga digu. Karakate Mikologi Elkarteak antolatutako perretxiko lehiaketan ateratako erretratua da. Perretxiko sasoiak murgilduta gaudenez, egokia iruditu zaigu argazki hau argitaratzea. Ikusten den bezala, mutiko hauek jaso zuten sariren bat urte hartan eta oso pozik ageri dira. Garai hartan talde mordo batek hartzen zuten parte lehiaketan, ilusio handiz joaten ziren umeak perretxiko bila euren gurasoekin. Azken urteotan apur bat jaitsita zegoen lehiaketa, eta aurten ez egitea erabaki dute, batez ere, mendiak eta natura zaintzeko. Horren ordez, perretxiko erakusketa egingo da azaroan. Gogora ditzagun zein diren mutiko hauek: Ezkerretik eskumara: **Jon Bastida, Unai Froilan, Josu Iriondo, Iñigo Bastida eta Hektor Menezo.**



ESKERTZA


2007ko uztailaren 11n, 45 urte zituela hil zen **Beatriz Iriondo Osororen** oroimenez, lagunek jarritako meza izango da urriaren 21an, eguerdiko 12:30ean Altzolako San Juan Parrokian. Aldez aurretik eskerrak azalduko zareten guztioi.



ESKERTZA

2007ko urriaren 14an, hil zen **Maria Kristina Goikoetxea Unzueta**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





D / EKORAZIOA

BERRIA!!! ALFONBRETAN AUKERA PAREGABEA! GUZTIENTZAKO PREZIOAK

Dekorazio integrala erreforma eta altzarietan.

Gremioen koordinazioa.



30 min
+10 te
+10 gia

IMH
Elgoibar
2007/10/25
9:00-14:30

Mintegia
Makina erreminta arloko enpresen
erantzukizun soziala,
euskara baliabideak eta praktika onak

1. Sarrera eta omenaldia

ELGOIBARKO UDALA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA

Euskara plana abiatu zuten
lehen enpresei esker ona:
ARLAN, CAF, ELAY,
IKERLAN, INEKO,
LURGINTZA, MIBA.

4. Amaiera

AHIZE-AEK
IMH

Makina Erremintaren
Museoan luntxa eta bitariko
bilerak

2. Enpresa eta hizkuntza kudeaketa

PILAR KALTZADA, enpresa irudia eta hizkuntzen kudeaketa
IBON AIZPURUA ELEKA, berrikuntza eta hizkuntzen kudeaketa
DANIEL HERMOSILLA EHU-UPV, nazioartekotzea eta hizk.kudeaketa

Praktika onak

AIRE INDUSTRIAL (KATALUNIA)
DEBABARRENEKO UDALAK
GIPUZKOAKO OGASUN ZERBITZUA
PASAICO PORTUKO AGINTARITZA

ELAY
GOIZPER
LEALDE
KONTSEILUA

3. Produktu eta zerbitzuak

HPS-IKT INBENTARIOA
KUTXA
ELKARGI
ILS hizkuntza zerbitzuak
DI-DA komunikazio-itzulpenak
GURUTZE GORRIA

AHIZE-AEK
IRONTEC /crm-striming
ZUNDAN/open office
MUPEM/cnc
FAGOR AUTOMATION/win dnc
DANOBAT/eskuliburu teknikoak

INFORMAZIOA ETA INSKRIPZIOA:
IMH, Elgoibar – Leire Alberdi – 943 74 41 32 – imh@imh.es – www.imh.es

Oharra: Areto Nagusiak aldi-bereko
euskara-gaztelera itzulpen sistema
izango du

